

ARETO GIDA



IZENBURUA: Urritu

ARTISTA: Bene Bergado

TOKIA: Azkuna Zentroa (Erakusketa Aretoa)

EGUNA: 2023ko ekainaren 29tik 2024ko urtarrilaren 7ra



**AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO**



Bilbao

ARTISTA

Bene Bergado eskultorea da.

Salamancan jaio zen 1963an.

Bere obran erreala eta irrealak dena nahastea du bereizgarri.

Badirudi dena dela aldi berean egia eta gezurra.

Bere eskulturak hainbat museotako bildumetan daude ikusgai:

Mexikoko JUMEX, Madrilgo Banco de España,

Leongo MUSAC eta Gasteizko ARTIUMen.

KOMISARIOA

Juan Luis Moraza da erakusketaren **komisarioa**.

Gasteizen jaio zen 1960an.

Vigoko Unibertsitateko irakasle titularra da

eta beste unibertsitate batzuetan ematen ditu eskolak.

Erakusketen komisarioa izan da ARTIUMen,

Madrilgo Reina Sofían eta Bilboko Guggenheim museoan

Komisarioa: erakusketa bateko artelanak aukeratzeaz arduratzen den pertsona hau gaian aditua izaten da eta diskurtso teorikoa egiten du erakusgai dagoenari.

DISEINATZAILEA

Almudena Burkhalter-ek diseinatu du erakusketaren espazioa.

ERAKUSKETA: Aurkezpena

Bene Bergadok “**Urritu**” izenburua jarri dio erakusketa honi,

hori baita jorratzen dituen gaietako bat.

Eskulturen eta instalazioen bidez,

egileak agerian jarri eta kontzientzia piztu nahi du

gure gizartean desazkundea bultzatzeko dagoen beharraz.

Urritu: pentsamenduaren korrante honek ekoizpena eta kontsumoa murritu nahi ditu, planetaren biziraupena ziurtatzeko.

Gure gizarte kapitalistan, mugarik gabe ekoizten eta kontsumitzen dugu, erregai fosilak (petrolio, ikatza, etab.) erabiltzen ditugu energia gisa, eta, horrela, baliabideekin amaitzen eta planeta kaltetzen ari gara.

Horregatik, desazkundera da irtenbidea eta premia: aukeratu egin dezakegu; bestela, behartuta iritsiko gara horretara.

Erakusketan, ikusgai dauden instalazioek ideia horiek guztiak islatu nahi dituzte, hala nola “Lur erre” eta “Sorgailua” lanek.

Urritu: Egilea bere obrari buruz hausnarrean

Txiki-txikitatik, neure buruari galdetu diot zer dela-eta, enpresa bat ondo joan dadin, ekoitzi eta hazi behar duen etengabe.

Kapitalismoa

Gure eredu ekonomikoa etengabeko eta mugarik gabeko hazkundera oinarritzen da, eta horrek petrolio eta beste energia batzuk behar ditu, dagoeneko agortzen ari direnak.

Planeta ez da gai bere baliabideak birsortzeko, izugarritzko erritmo bizian ekoizten eta kontsumitzen baititugu.

Kontsumoa

Gure gizarteak gero eta gehiago kontsumitzen du, jendeak gauza asko eduki nahi du, inbidia die aberatsei, luxua miresten du...

Kontsumismoa da erlijio berria.

Urritu

Idea honek proposatzen du “hobeto bizitzea, gauza gutxiagorekin”.

Etorkizunean gizateriak bizirik irauteko dagoen aukera bakarra da ekoizpena murriztea eta arautzea.

Erregai fosilen ordez, **energia berriztagarriak**

eta teknologikoak jarri beharko dira,

eta horiek ezin dira biltegiratu eta ezin dira hazi.

Datorkigun etorkizunak behartzen gaitu

bizitzeko ditugun ohiturak aldatzera:

energia gutxiago erabili, berrerabili, birziklatu, birbanatu...

**Energia berriztagarriak
eta teknologikoak:**

energia hauek naturako elementuekin lortzen dira, hala nola eguzkia, haizea, itsasoa erabiliz, teknologiaren laguntzaz.

Artea eta artistak

Artearen mundua ere lagungarria izan daiteke aldaketa horiek egiteko.

Gure artelanekin, artistok egon daitezkeen bideak jar ditzakegu agerian, gehiegikeriari lotutako ohiturekin amaitzeko.